



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Ezequiel Loiarde Santesteban.
Francisco Michelena Celayeta.
Leire Bazterrika Loiarde.
José Maria Michelena Erasun.
Imanol Baleztena Elizalde

2019ko maiatzaren 7an, 18:30etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Aurreko bilkuretako aktak irakurri ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

Aurreko bilkuretako aktak onartzea.

2.-EUSKARA DIRU LAGUNTZAK.

Udalburuak, Malerrekako mankomunitatearen bidez aurrera eramaten ari diren euskareren bultzadarako diru laguntza eskaerak zeintzuk eta zertarako diren azaldu ostean, bozkatzera deitu du. Udalbatzak erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Euskara diru laguntzen eskaera onartzea eta Alkateari eskaera egiteko botere nahikoa ematea.

3.- AURREKONTU ALDAKETAK



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Kontu hartzaileak, aurrekontu aldaketen inguruan (1/2019tik 4/2019ra) mintzatu ostean, eta hurrengo puntua den finantza planarekin zerikusia dutela azaldu eta gero, Udalburuak bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Aurrekontu aldaketak berrestea.

2.- Akordioa NAO-n argitaratzea.

4.-EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA.

Kontu hartzaileak, ekonomia eta finantza plana zertan datza azaldu die Udalbatzako kideei. Horren ondotik Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Ekonomia eta finantza plana onartzea.

2.- Akordioa NAO-n argitaratzea.

5.-ARTIKUTZAKO PLEGUAK.

Pleguen azkeneko alearen inguruan mintzatu ostean, Udalburuak bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengo aerabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Pleguak onartzea.

2.- Akordioa interesatuei helaraztea.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

6.-ESKABIDEAK.

6.1 Udalbatzak Bautista Baleztena Petrikorenaren eskaera aztertu ostean, hurrengoa erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Oihan aprobetxamenduaren eskaerarengatik paratu zitzaion fiantza bueltan ematea.

7.-MOZIOAK.

Ez dago moziorik.

8.-ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Udalburuak alkatetzaren ebazpenak (2018/72tik 2018/75era eta 2019/27tik 2019/47ra) irakurri ondoren, bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

Ebazpenak berrestea.

9.-HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: NAO 74. Zenbakian publikaturiko mendi lanendako diru laguntzak; Again Plataformarekin dauden datuen jasotzearen arazoak; Frontoiko mendeurrena ospatzeko bilera; Kantauriar Konfederazio Hidrografikoak emandako baimenak -Zubietako Udalari (A/31/03750) eta Fermín Santesteban Elizalderi (A/31/03729); Ingurugiroko Zerbitzuko Zuzendaria 141/2019 Ebazpenaren bidez onarturiko sakabanaturiko zuhaitzen aprobetxamendua; Ingurugiroko



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Zerbitzuko Zuzendaria 129/2019 Ebazpenaren bidez onarturiko etxeetarako egur loteendako aprobetxamendua; Landa Aberastasuna eta Ogasuneko Zergen Zuzendariak 12/2019 Ebazpenaren bidez Zubietako balorazio ponentziaren onartzea; Ingurugiroko Zerbitzuak herritarrei onarturiko oihan aprobetxamenduak- María Flora Loyarte Jaunarena, Martín Legazcue Santesteban, Higinia María Santesteban Santesteban, María Carmen Mariezcurrena Ezcurra, Ana María Mugica Santesteban- ; Ingurugiroko Zerbitzura zuzenduriko oihan aprobetxamendu eskaerak -Ana María Mugica Santesteban, Julia Hualde Indacochea-; Ingurugiroko Zerbitzua emandako aprobetxamenduen luzapena-Manuel Tello Díaz-; Ingurugiroko zerbitzuak erretzeko emandako baimena -Julen Burguete Alvarez-; Udalak Komarka Atlantikoko Kudeaketa Zerbitzura helarazitako mendi lanen proiektua, pinu insignisaren gaitzaren inguruan egon daitezkeen diru laguntzen eskaera egiteko.

10.- HERRIAREN TXANDA GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde eskerik.

Eta besterik ezean, arratsaldeko 19:36ak direla, Udalburuak amaitutzat eman du ospaturiko osoko bilkura.